


MATERIALISMO HISTERIKOA

EZ HANKA EZ BURU

 ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

Eutsi beldurrei



UXUE APAOLAZA LARREA

Zutabe hau idazteari uko egin behar nioke, baina berandu da. Hauteskundeak izan dira Frantzian. Non dago Frantzia? Bai, hemen goian, iparraldean; baina, munduan, ez dakit oraintxe non dagoen Frantzia, noren zer den. Eta ez dakit noiztik begiratzen diodan ia soilik beldurrez.

Ez dakit ia ezer Frantziako politikari buruz. Gipuzkoako euskaldun horietako bat naiz, Espainiako politika bertakoa baino zehatzago ezagutzen duena, eta Frantziakoaz aspaldiko orokorkeriak, gure Iparraldeaz ere antzeko. Ezjakintasun hori kritikatzeko autokritika bat egin nezake.

Edo gaiari, oraingoan, zera ematen ziotenetan zentratu: ea Peio Dufau abertzalea diputatu izango zen (bai), NFPren barruan; ea FNk, eskuin muturrak, hauteskundeak irabaziko zituen. Baina zoritxarrezenez NFPk irabazi du, eta ez dakit esaten ezer.

Tematu naiteke eskuin muturrarekin, ez dute irabazi, baina irabazi dute, eta gorakada globala da. Apokaliptiko jar naiteke, berriro. Zorte txarrak nahi izan du Erresuma Batuan emaitzak oso bestelakoak izatea. Ez du koitzidentziak orokorkeriarako ematen. Baina emango balu ere, zer, ez dut diagnostiko argirik ikusten, nik ere ez dut, hilean bat bururatzen zait, eta asko haserretzen naiz azalpen askorekin, eta bai-bai egiten diet beste hainbesteri, baina, gero, tira, baina... eta nik zer dakit, ahaztu ere bai. Ez naiz ausartzen iritzi bat edukitzera ere, agian, horregatik ditut hainbeste. Batzuetan uste dut ez genituzkeela gehiago eduki behar gaiari buruz denbora batean, traumatizatuta dirudigula, ez dugula ondorio egokirik ateratzen.

Zerbait esatearren, frantziarrei ere niri adinako beldurra ematen die dirudienez beren herrialdearen zati batek, eta beldur hori errentagarria izan da eserlekutan (eta, beraz, batez ere, ez-eserlekutan). Gogora etorri zait hona lehenago ekarritako Graboisen esaldi hura (Borges parafraseatuz) *“si no es el amor, que sea el espanto”*; ez zuen funtzionatu, eta argentinarren ausardiak ekarri du agian Milei, eta frantziarren beldurrak erauzi dio gobernua Le Peni. Agian hori asmatu behar da, zer bideratu unean-unean, ausardia edo beldurra. Eta gu tematuta beldurrak gaintitu, uxatu, ez-entzun nahian. Bizitzak erakutsitako beldurrak ez dira inola ere ondotik uxatu behar arrazoi ez dutenik frogatu arte. Eta beharbada beldur konpartitu bat bada arrazoi nahikoa elkartzeko. Soluziorik baden jakin arte, beldurrak salba (elkar) gaitzala. ●

